



**EBAZPENA, POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, UDALTZAIN KIDEGOETAKO BITARTEKO AGENTEEN ALDI BATERAKO ZERBITZUAK EMATEKO LAN-POLTSA INDARRIK GABE UZTEN DUENA.**

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea bosgarren aldiz aldatzen duen ekainaren 27ko 7/2019 Legea argitaratu da 2019ko uztailaren 9ko EHAAko 129. zenbakian.

Aipatutako lege-testuaren 118. artikuluan ezartzen denez, ikuskapen-eskala eta oinarritzko eskala C taldeko C1 azpitaldean sailkatzen dira.

Legearen idazketa berriak lehen C2 izandako oinarritzko eskalaren sailkapen-azpitaldea aldatzen du.

Bitarteko agenteen lan-poltsa 2014an sortu zen, eta gaur egun arte mantendu da. Lan-poltsa hori C2 azpitaldean eskatutako titulazio-betekizunen arabera hautatu zen, eta, beraz, poltsa hori ez dator bat indarreko lege-testuan ezarritakoarekin.

Horregatik, eta Euskal Herriko Poliziaren Akademiako egitura ezartzen duen 96/2010 Dekretuaren 8. artikulua, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko 15/2012 Legearen 23. eta 26. artikuluek eta indarrean dagoen gainerako legeria aplikagarriak emandako eskumenei jarraikiz, honako hau

**EBATZI DUT**

**LEHENENGOA** - Udaltzaingoaren bitarteko agenteen lan-poltsa, kidego horretan aldi baterako zerbitzuak emateko izan dena, indarrik gabe uztea.

**BIGARRENA**. - Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalen artean sinatutako lankidetzaren guztiak ebatzitzat ematea, legeak hala aginduta, Udaltzaingoaren Oinarritzko Eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa bat sortzeko.

Lan-poltsa kudeatzen duen organoak ebazpen honen berri emango die eragindako udalei.

**HIRUGARRENA**. - Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-ohol ofizialean eta haren web-orrialdean argitaratzea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, bere aurka, Aukerako Berraztertze Errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken kasu horretan, administrazioarekiko auzien epaitegien lurralde-eskumenaren arauak errespetatu beharko dira, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. artikuluan jasotakoak.

Arkauti, 2019ko azaroaren 6a.

Sin.: **Malentxo Arruabarrena Julián**  
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendaria